

**I. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO FORU ADMINISTRAZIOA****Foru Enpresak eta Foru Erakundeak****Bizkaiko Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundea (GUFÉ)**

**Europar Batasunarekin batera finantzaturiko GUFÉko proiektuak kudeatzera bideratuta dagoen Iruzuraren aurkako Neurrien Plan indartu bat artikulatzeko akordioa.**

Bizkaiko Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundearen Gobernu Batzak, 2022ko maiatzaren 20an egindako bilera arruntean (2/22 akta), besteak beste, honako erabaki hau onartu zuen:

«*Lehenengoa:* Bizkaiko Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundea atxikitzea iruzurra, ustelkeria eta interes-gatazkak prebenitzeko, atzemateko eta zuzentzeko mekanismoak indartzearen arloan Bizkaiko Foru Aldundiak Europako funtsak kudeatzeko hartutako xedapenetara; eta, bereziki, Iruzuraren aurkako erakunde-adierazpena, Etika- eta jokatibide-kodea eta BFaren Integritate- eta kudeaketa-arriskuen prebentzio- eta iruzur-neurrien plana, Europar Batasunarekin batera finantzaturiko proiektuetan, Gobernu Batzordeak maiatzaren 17an onartua.

*Bigarrena:* Gerentea gaitzea, hala badagokio, Bizkaiko Foru Aldundiak xede horrekin onartzen duen edozein plan edo neurri berriri atxikitzea ebazteko. Gaikuntza hori Planak bere baitan hartzen dituen neurri partikularrak ezartzeko beharrezkoa den bezain zabala izango da, gerora Batzorde honi kontuak emateari kalterik egin gabe.

*Hirugarrena:* Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, Irargarki-oholean eta GUFÉren web-orrian argitaratzeko agintzea.»

Bilbon, 2022ko maiatzaren 20an. —GUFÉ-ko Gerentea, David Latxaga Ugartemendia